

## **BBK-EUSKALTZAINDIA**

### **FELIPE ARRESE BEITIA OLERKI SARIA 2008**

*Azazkalak jaten* poesia lana saritzeko arrazoiak hauek dira.

Eguneroko gertakarien irakurketa desautomatizatua eskaintzen digu, barnetik kanpora doan hausnarketa hain zuzen.

Une bateko perzepzioa adierazi nahi du narrazio moduan eta narrazioaren legeak erakutsiz.

Esaterako: “Sinesgogortasunaren iraingidura” izenekoan, non ikusten den argi narrazioaren antzeko egitura.

Bestalde, epaimahaikideok sumatu dugunez, poema-liburua poemaz poema eraikia izan da. Horregatik uzten du denborarik ezaren sentsazioa.

Errealitatea sakona edo gordina den arren, poetak ironia xume eta fina darabil, errealitatea bera kontatzeko.

Osagai kulturalak, tradizio kultistan ez bezala, eztabaidatzeko eta beste era batez begiratzeko ekarriak dira.

Esaterako: “Unamuno ere nekatu da”.

Azkenik, ardailarik edo efusiorik gabeko ahots orekatua bilatzen du baina ahapeka korronte zorrotz eta galdetzailea ezagutzera emanez.

Esaterako: “Azalzakal jaten”.